AGURAINgo UDALA

# IRAGARKIA-BANDO

## *ALKATEAK, JAKINARAZTEN DU:*

## EL ALCALDE, HACE SABER:

### ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Beste behin ere, Aguraingo bi emakumek duela urte batzuk haiek eta beraien seme-alabak jasaten ari diren indarkeria egoera amaitzea erabaki dute. Horietako batirain sexistak eta arrazistak jasan ditu behin eta berriz, baita heriotza-mehatxuak ere. Beste emakumeak eta bere alabek indarkeria psikologikoa, isolamendua eta indarkeria ekonomikoa jasan dituzte. Ondorioz, areagotu egin da lehen pairatzen zuten pobrezia- eta bazterketa-egoera.

Gure udalerrian gertatutako indarkeria matxistarekin zerikusia duten azken kasu hauen aurrean Aguraingo udalak gaitzespen eta arbuio irmoenak erakutsi nahi ditu. Era berean, gogorarazi nahi die emakumeei bakarrik ez daudela eta bere elkartasuna adierazi nahi die haiei eta bere familiei. Halaber, emakumeen ausardiari balioa ematea nahi diogu, aspalditik bizi duten indarkeria-zirkulua apurtzeko urrats hori emateagatik.

Aguraingo udalak argi utzi nahi du pertsonen arteko berdintasunik eza dagoela halako erasoen oinarri-oinarrian, baita emakumeak kontrolpean ere izan nahi dituzten jarrerak eta ideia matxistak ere. Horregatik, beste behin ere, pertsonen arteko berdintasuna aldarrian jartzen dugu azpimarra; emakumeen duintasuna, integritate fisikoa, sexuala eta psikologikoa eskubide urra ezinak dira. Eskubide horien aurkako ekintzak erabat gaitzesgarriak dira, eta ez dute lekurik gure gizartean.

Aguraingo udalak herritarrei dei egiten die bortizkeria matxistaren aurkako jarrera eta konpromisoari eusteko, inoiz baino gehiago erne jarraitzeko, biolentzia jasaten ari diren emakumeek erakundeon eta komunitate osoaren babesa jaso dezaten.

Hori dela eta, Aguraingo Udalak eskatzen die udalerriko herritar guztiei udalak egingo duen elkarretaratzean parte hartzera **ostirala, hilak 29, Udaletxearen aurrean, 12.30etan**, indarkeria matxista gaitzesteko eta une latz hauetan genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei, haurrei eta, oro har, adingabeei babesa emateko.

Agurainen, 2023ko irailaren 25ean.

### DECLARACION INSTITUCIONAL

Una vez más dos mujeres de Agurain han decido poner fin a la situación de violencia que estaban sufriendo desde hace años ellas y sus hijas e hijo. Una de ellas, ha sido víctima recurrentemente de insultos sexistas y racistas e incluso alguna vez de amenazas de muerte. La otra mujer, junto con sus hijas, han sido víctimas de violencia psicológica, aislamiento y violencia económica, agravando la situación de pobreza y exclusión que ya sufrían antes.

Ante estos hechos que tienen que ver con la violencia machista contra dos mujeres, dos niñas y un niño, la corporación municipal de Agurain quiere mostrar su más rotundo rechazo y repulsa. Así mismo, queremos recordar a estas familias, que no están solas y les mostramos nuestro más sincero apoyo, además de poner en valor su valentía por haber dado este paso y romper el círculo de violencia en el que vivían desde hace tiempo.

El Ayuntamiento de Agurain quiere dejar claro que este tipo de hechos tiene su origen en la falta de igualdad entre hombres y mujeres, y en las actitudes e ideas machistas que quieren tener sometidas y bajo control a las mujeres. Por todo ello, una vez más, ponemos el acento en la reivindicación de la igualdad entre todas las personas. Así como la integridad física, sexual y psicológica de las mujeres, son derechos inviolables, y las conductas que atentan contra estos derechos no tienen cabida en nuestra sociedad.

El Ayuntamiento de Agurain llama al conjunto de la ciudadanía a no bajar la guardia contra la violencia machista, para que las mujeres que estén pudiendo sufrir esta situación puedan sentir todo el apoyo de la sociedad.

Por todo ello, el Ayuntamiento de Agurain hace un llamamiento a toda la ciudadanía del municipio a participar en la concentración, convocada por el ayuntamiento, que se realizará el viernes **29 de septiembre delante del Ayuntamiento a las 12.30** para mostrar el rechazo a la violencia machista y el apoyo en estos duros momentos a las mujeres, niñas, niños y menores en general víctimas de violencia de género.

En Agurain, a 25 de septiembre de 2023.

**Raúl López de Uralde Baltasar**
**ALKATEA/ALCALDE**

AGURAINgo UDALA